



#### 4 GARAJEAK

### Bere jabetzako 149 garaje errentan jarriko ditu Udalak

Lasarte-Oriako Udalak bere jabetzakoak diren 149 garaje errentan emateko esleipen prozedura jarri du martxan. Interesa dutenek urtarrilaren 27ra arte eman ahaliko dute izena Betelu gestorian. Okendo plaza azpiko, Tajamar biribilguneko eta Bekokaleko hainbat garaje jarriko ditu Udalak herritarren eskura. Plaza horiek ikusteko aukera egongo da bihar, 12:00etatik 13:30era eta 18:00etatik 19:30era bitartean.

#### 5 GIZARTEA

### Komentura bueltatu da Concha Arraztio, 40 urte eta gero

La bizitza erdia eman du Concha Arraztiok herrian lan eta lan; 40 urte, hain justu. Komentua utzi eta harrera pisu baten erantzukizuna hartu zuen Gaintzan (Nafarroa) duela 92 urte jaiotako emakumeak. Familia desegituratu batzuetako zortzi gazte zaindu ditu denbora horretan, baina osasun arazoak tarteko, zeregin hori utzi eta komentura bueltatzea erabaki du, Jesusen Bihotzaren ordenaren Martuteneko egoitzara.



Lasarte-Oriako Udalak Araudi Organiko bat edukiko du haren historian lehenengo aldiz.

## Udalaren jarduerak, erregulatuak Lasarte-Oriako Udaleko Araudi Organikoa indarrean dago jada

Araudi Organiko batek erregulatu eta zehaztuko du Udalaren jarduna hemendik aurrera. Jesus Zaballos alkateak "akordio historikoa" dela nabarmendu du, udalerrriaren historian gisa horretako lehenengo dokumentua baita.

Udalbatzarraren funtzionamendu eta antolaketa, alkatea aukeratzeko sistema, zinegotzien eskubide eta betebeharrak... Gisa horretako xehetasunak jasotzen ditu 61 orri dituen Lasarte-Oriako Udaleko Araudi Organikoak.

Prentsaurrekoa eman zuen atzo goizean Jesus Zaballos alkateak, dokumentuaren nondik-norakoak azaltzeko. Beste ezer baino lehen, nabarmendu zuen "historikoa" dela araudi propio bat ezartzea, udalerrriaren historian lehena baita. Erregimen Lokalaren Oinarrien Legearen

arabera jardun du Udalak orain arte.

"Funtsean, Udalaren jardura denak erregulatu dituzte araudiak; hori da erakundearen dokumentu garrantzitsuen gaur egun", zehaztu zuen Zaballosek.

#### Araudiaren ezaugarriak

Erregulatu diren prozeduren artean dago adibidez mozioak aurkezterakoan nola jokatu. Jatorrizkoak direnei alternatiboak aurkezten dizkiete alderdiek askotan. Plenoetan azken horiek aztertzen dira lehenengo eta, onartuz gero, jatorrizkoa ez da lantzen. Alkateak

esan zuenez, alderantziz egingo dute hori orain.

Bozerramaileen batzarrari udal organo izaera ematea ere erabaki dute, alkateak jakinarazi zuenez: "Alkatearen esku zegoen orain arte batzar hori deitzea edo ez".

Bestalde, oposizioko alderdi guztiek espazio propio bat edukiko dute udaletxean, korporazioan dituen kide kopuruaren arabera.

Aipatutakoez gain, beste hainbat alor erregulatu dira bertan: alkatearen aukeraketa, korporazioa nola osatu, alderdi politikoen eraketa, etab.

#### "Gehiengo zabala"

"Ahalik eta gehiengo zabalean" lortzen saiatu da alkatetza dokumentua plenora eraman aurretik, alkateak atzo adierazi zuenez. "Proposamenak ez zuten kontrako bozkarik jaso

astearteko udalbatzarrean; 13 aldeko eta 4 abstentzio, hain zuzen. Eskerrak eman nahi dizkiet alderdi politiko guztiei horregatik; denon artean egingadako lanaren isla da".

Aurreko legealditik dator egitasmoa, Zaballosek zehaztu zuenez: "EH Bilduk ekin zion lanketari, baina lanketa mahaia legealdiko azkeneko sei hilekoan eratu zen eta ez zigun denborarik eman onartzeko. Erabaki dugu orain arte itxarotea, alderdi berri bat sartu baitzen maiatzan, Lasarte-Oriak Ahal Du hain zuzen; haiek ere aztertze denbora edukitzea bidezkoa zen".

Aurreko gobernuak kritikatu zituen, "30 urteren buruan araudia egin eta adosteko gai ez izateagatik". Erdarazko bertsioa soilik dago orain; euskarara itzultzea bidali du jada Udalak.

## 2016 EUSKARA IKASTAROAK

MARTXAN DAUDEN TALDEETAN SARTZEKO

#### MATRIKULALDIA:

2016ko otsailaren 12ra arte

#### BULEGO ORDUTEGIA:

08.30-19.15

#### UDALAREN DIRU LAGUNTZA:

Matrikularen %85

#### IKASTARO MODULUAK

Astean 10 ordu  
2,5 ordu astelehenetik ostegunera

#### ORDUTEGIAK:

09.00-11.30  
15.00-17.30  
18.30-21.00

\*Txandaka ibiltzeko aukera



EUSKARA  
EUSKALTEGIA



Neure kabuz



**Jexux Artetxe**  
Senidegoa, herria, aberria

Aberria gertukotasunean mamitzen den atxikimendua da. Xabier Letek, gure garaiko poeta haundienak, paisaia bat zela esaten zuen. Paisaia fisikoa eta mentala, bihotzekoa eta kulturala, gure bizitza errearen eszenarioa eta ametsetan irudikatzen duguna ere bai. Lurralde jakin batekin lotzen dugu aberria. Baina, dagokion kokalekuaren mugarriztatik gaineko adierazpenak ere agertzen dituena, "haurridego bat, senidego bat, eta elkarrekin, gure bizilekua, gure aber-paisaia, hobeagozkeo, ederragozkeo asmo sendo bat eta kapazidate bat, morala, intelektuala, politiko... Hori dena litzateke aberria".

Asko gara Lete zenaren azalpenekin bat gatozenak. Inongo herri edo aberriaren gainetik jarri gabe, beste inoren aurreko gailentasunik izateke, gutar askok gurearekiko dugun sentimendua modu berezian bizi ohi dugu. Aberria (herria) egunero eraikitzen ari garen elkargunea denez, (ab)errigintzaren formulazioa derrigor irekia, eta elkartzaila, izan behar du. Egunez egun, 'senidegoa' senide berriez osatzen ari den bezalaxe, gizarte-bizitzaren bilakabidearekin batera aldatzen ari zaigu gure inguru fisiko eta mentala. Esan genezake irekitasuna izan dela nagusi azken mendeetako euskal herrigintzan. Horrek ez du, ordea, gure herri nortasuna zokoratu. Arian-arian mundutasunera zabaldu bada ere, gure gertukotasunaren ikusmira partikularra ez da desegin.


Bada, hala ere, partikulartasun hori mantentzeak gure etorkizuna zamaten duela esaten duenik. Unibertsalak izan behar dugula diote, alternatiba gisa. Unibertsaltasuna eta aberriaren ukazioa aldarrikatzen duten horiek, independentziarako biderik bizkorrena delakoan ari omen dira. Xedea beharko lukeena bidearen menpeko eginaz. Hala baina, jarri gaitezen serio: ba al du inolako zentzurik 'haurridego' edo 'senidego' partikular jakin bati zuzenduta ez dagoen independentzia horrek?

Zorion agurrak



Jon

Zorionak Jon, etxeko partetik... Berezi-ki 'aitona' eta 'abuelo'-ren izenean. Ondo pasa!!



Unai

Zorionak bihotza!! Hamar muxu pottolo familiako guztion partetik. Aparta zara!!



David

Zorionak, aita!!! 42 urte, 42 kilometro... ta guk 42 muxu! Silvia, Siena eta Ekai



Iker

Zorionak txapelduna zure urtebetetzearan. Oso-oso ondo pasa!!! Asko maite zaitugu!!! Unai, aita eta amaren partez.



Markel

Zorionak maitia. Asko maite zaituzten senide eta lagunekin egun zoragarria igaro dezazun opa dizugu. 3 urte zoriontsu izan ditzazula. Muxuak.



Aratz

Zorionak Aratz! 6 urte jada. Ondo pasa zure egunean. 6 muxu potolo aita, ama, Aiur eta Nairen partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Lokal komertziala alokatu edo saltzen dut, 40 metro karratu. Sasoeta auzoan, Uzturre kalea 7 izkina. Oso argitsua, dendaostea eta komuna du. Salgai 45.000 eurotan edo alokairuan 300 euro hilabetean. Interesatuak galde-tu Marianengatik, 685 780 857.
- Pisu bat alokairuan Usurbilen, 3 gela, egongela, sukaldea eta 2 komun. 3 balkoi, dena kanpoaldera. Tlfnoa: 658 756 344.

Salerosketa

- Bizkien karroa saltzen da. Easy Walker marka. Erosteke asmoa duenarekin prezioa adostuko da. Harremanetarako, 607 49 06 51.
- Emaztegia eta almirantearen jantzi bana

jaunartzeetarako. Merke. 943370092

Lan-eskaria

- Erizaintzako laguntzaile euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. 622 92 55 62 (Esther).

Bestelakoa

- Ile-apaintzaile profesionalak etxetzeko zerbitzua eskaintzen du. Cristina, 633 31 69 98.
- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 76 60 68.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Intza Olazabal Ormazabal, urtarilaren 2an.
- Erik Lorenzo Gallego, abenduaren 20a.
- Ane Roig Gonzalez, abenduaren 19an.

Heriotzak

- Herminia Briosca Mateos, urtarilaren 3an, 73 urte zituela.
- Esperanza Aparicio Barroso, urtarilaren 2an, 72 urte zituela.
- Jose Marante Sanchez, abenduaren 30ean, 72 urte zituela.
- Jesus Alba Azpeitia, abenduaren 22an, 90 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 15	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 16	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Igandea, 17	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Astelehena, 18	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteartea, 19	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteazkena, 20	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Osteguna, 21	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

**GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero**  
Echeveste Elozegi, Elkano 9  
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak


Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
ISSN: 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

txintxarri

**Erredakzioa:**  
Nerea Eizagirre, Martin Vicioso, Inigo Gonzalez.  
**txintxarri@txintxarri.info**  
**Publizitatea:** Arantxi Zulaika  
**publizitatea@ttakun.com**  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi  
**Informatikoa:**  
Xabier Amadoz

## UDALBATZARRA



Zenbait herritar gerturatu ziren astearte arratsaldeko ohiko udalbatzarrera.

# Araudi Organikoa, onartua

## Enplegu Mahaia sortzea ere adostu du udalbatzarrak

**Alkatetzak Lasarte-Oriako Udaleko Araudi Organikoaren behin betiko txostena eraman zuen astearteko udalbatzarrerara. Aztertu eta eztabaidatu ostean, onartua izan zen, 13 aldeko bozka (PSE-EE, EH Bildu eta EAJ) eta 4 abstentziorekin (Lasarte-Oriak Ahal Du eta PP). Beste zenbait puntu ere jorratu zituzten saio horretan. Herriko Enplegu Mahaia eratzeari adostu zuen udalbatzarrak, udalerriko langabezia-tasa altuari aurre egiteko helburuz.**

## TXINTXARRI

Udalbatza osatzen duten ordezkari politikoak, oro har, gustura ziren lortutako akordioarekin, nahiz eta horietako gehienek (EAJ ezik, beste guztiak) 125 puntuko txostenari zenbait emendakin aurkeztu, 27 guztira.

EH Bilduko bozeramaile Pablo Barriok nabarmendu zuen "oinarrizkoa" dela Udalak arautua edukitzea bere jardura: "Aurreko legealdian ekin genion hori lantzeari, eta gure proposamena onartu gabe geratu zen. Txostena beste alderdi batek ekarri du oraingoan baina baiezkota eman dugu, funtsezkoa baita".

Lasarte-Oriak Ahal Du-ko kide Arkaitz Nayak "oso positibotzat" jo zuen txosten horretan egindako lana, baina era berean zehaztu zuen alderdia ez zegoela ados bi puntuekin: "Alde batetik, uste dugu Udalak elebitan argitaratu behar dituela dokumentu guztiak eta, bestetik, Alkatetzan egiten diren aukera libreko kargu hautaketan kontra gaude".

EAJk ez dio emendakinik aurkeztu txostenari, aurreko legealdikoan proposatutako gehienak onartuak izan zirelako, Estitxu Alkorta adierazi zuenez. Udalak dokumentuak elebitan egiteari dagokionean, alderdi jeltzaleko bozeramaileak esan zuen Udala ez dagoela horretara behar-

tua, baina bai herritarrek nahi duen hizkuntzan erantzutera.

PPko zinegotzi Alejandro Saenzek goraiatu egin zuen udaletxeko idazkariak egindako lana baina abstenitu egin zen haren emendakinak ez zirelako onartuak izan.

PSE-EEko bozeramaile eta herriko alkate Jesus Zaballosek aipatu zuen dokumentu denak elebitan publikatzeak "kolapsatu" egingo lukeela Udalaren jarduna: "Aurreko legealdiko proposamenean ere zehaztu zen". Alkatetzako aukera libreko karguen inguruan, Zaballosek esan zuen "legala" dela, eta pasa den legealdiko kopuru bera mantendu dela honetan; bi lanpostu zehazki.

### Herriko Enplegu Mahaia

Udaleko Araudi Organikoaz gain, Herriko Enplegu mahaiaren erregelamendua onartu zuen udalbatzarrak, 9 aldeko bozka (PSE-EE eta EAJ) eta 8 abstentziorekin (EH Bildu, Lasarte-Oriak Ahal Du eta PP). Arkaitz Nayak adierazi zuen herriko langabezia tasa murrizteko ekintza guztiak direla "garrantzitsuak", baina egin zitekeela gehiago, "asmo onak adieraztea baino zerbait gehiago egin izan balitz, askoz hobe litzateke".

Alkateak hartu zuen hitza, LOAD alderdiko bozeramaileari erantzuteko. "Erregelamendua aldatzeko egin diren proposamen gehienak atzera

botzeari beste erremediorik ez dugu izan, enpleguari dagokionean Lasarte-Oriako Udalak ez baitu ia eskumenik". Eztabaidatu ostean, bozkatu egin zuten proposamena eta aurrera atera zen, arestian aipatutako emaitzekin.

Hori baino lehen, pasa den urteko urriaren 13an burututako ohiko udalbatzarreraren akta onartu zuten Korporazioko kideek aho batez.

### Galderak eta erreguak

Gai ordenarekin amaitu eta gero, oposizioko alderdiek euren galderak eta kezkek plazaratzeko aukera izan zuten.

EAJk hainbat gai plazaratu zituen asteartean. Besteak beste, herriko berdegune eta lorategiengatik "kezka" azaldu zuen, adieraziz gune horiek ez daudela "behar bezala zainduta". Alkatearen erantzuna "pertsonal falta nabaria da zeregin horretarako, kontratatuta daukagun pertsonalaz gain langile gehiago gehitzeko lanean ari gara" izan zen.

EH Bilduk ere baliatu zuen txanda hori. Parte Hartze Araudiaren gaia plazaratu zuen, zehaztuz aurreko legealdian hasi zuela lanketa koalizio abertzaleak, Araudi Organikoarenarekin batera. Udal Gobernuari galdetu zion ea zer egingo duen gai horrekin. Zaballosek erantzun zuen ahalik eta lasterren jarriko dela batzordea horretan lanean, eta bilera laster deituko dutela.

Zenbait herritar bertaratu ziren astearteko saiora, eta horiek ere euren kezak eta galderak egin ahal izan zituzten, eta zegozkien erantzunak jaso zituzten Udal Gobernuo kideen ahotan.

## AMARAUN KLUBA

## Elementuak ipuinetan lantzen

Urtarrilaren 19an, asteartea, hiruhileko honetako ipuin kontalari saioei hasiera eman go zaio Amaraun Ludotekan.

Ipuin-kontalari saio hauek hiru eta lau urteko haurrei zuzenduak dira. Helburua istorioari esker gaia bat lantzea da. Horretarako jolas, abesti edo poesiaz baliatzen dira. Hiruhileko honetan naturako lau elementuetatik hiru landuko dituzte, itsasoa edo ura, lurra eta haizea.

Saioak beti bezala Amaraun Ludotekan izango dira, 18:00etatik 19:00etara eta huaetan parte hartzeko izena eman beharko dute haurrek. Horretarako, hiru aukera daude, Ttakuneko bulegora hurbildu, 943 37 14 47 zenbakira deitu edo [aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus) helbidera mezua bidali.



## ERRAUSKAILUA

## Errausketaren kontrako taldeen batzar irekia larunbatean

Gipuzkoan hondakinen errausketaren kontra eta Zero Zabor ereduaren alde mobilizatzen diren hainbat eragile larunbat goizean bilduko dira Zubietan, 10:00etan. Pilotaleku ondoko bilera-gelan elkartuko dira.

Bertan aurkeztu eta eztabaidatuko dute "Zubieta SOS. Buruaren eta Bihotzaren aldarria" manifestua.

Era berean, Zubietan Foru Aldundiak eraiki nahi duen errauskailuaren kontrako hurrengo mobilizazioa zehaztuko dira eta bertan bildutako talde eta militanteen elkarlana sendotzeko aukerak aztertuko dira.

## HEZKUNTZA

## EPA-HHIko aurtengo ikastaroetan izena emateko aukera

EPA-HHIk berak berriro zabaldu du aurtengo kurtsoetan izena emateko epea. Urtarrilaren 22a izango da azken eguna. Mugatuak izango dira matrikulatzeko plazak.

Ikastaroen eskaintza honakoa da: Euskara, Frantsesa, Artea, Tertulia literarioa, informatika eta Gaztelania etorkinentzat.

Izena 11:00etatik 13:00era eman daiteke astelehenetik ostegunera edota 10:00etatik 12:00etara ostiraletan, Osasun Zentroko 3. solairuan.

## GIZARTEA

## Gizon bat atxilo bulego-eraikin batean lapurtzen saiatzeagatik

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak jakinarazi zuenez, astearte goizaldean gizon bat atxilotu zuen Ertzaintzak, Oria Etorbideko bulego-eraikin batean lapurtzen saiatzeagatik.

Bizilagun batek egin zien hots agenteei, inguruan soinuak entzun ostean. Indarkeria zantzuak topatu zituzten ertzainek bulegoetako hainbat atetan.

## EUSKARA

## Muntteri-AEKn eskaintza zabala

Urte berriarekin batera, lasarteoriarrek euskara ikasi edo dakitena hobetu nahi badute, aukera dute Muntteri AEK euskaltegian.

Euskalduntzeko maila guztiak, B1, B2, C1 edo EGA tituluak prestatzeko klaseak eskaintzen ditu ordutegi ezberdinetan.

Interesa dutenek Muntteri-AEK euskaltegira, Geltoki kalea 17, hurbildu edo 943 37 28 63 deitu behar dute informazio eskuratzeko.

## TSST AUTOBUSAK

## Geltoki aldaketa Villabonan

TSST autobus enpresak jakinarazten du, Villabonako Zubimuxuko obrak dirauen bitartean, 5-6 hilabete, Pasusko geltokia biribilgunera lekualdatuko dela.



# Udal-garajeen esleipena prozedura martxan

## Okendo Plaza, Donostia Etorbidea eta Bekokale bideko 149 garaje-plaza izango dira

Lasarte-Oriako Udalak bere jabetzakoa diren aparkalekuak errentan edo kontzesio administratiboko erregimenean eleitzeko prozedura jarri du martxan. Interesa duenak urtarrilaren 27ra arte izena eman ahalko du Betelu gestorian. Honetaz gain, garajeak ikusi nahi dituzten herritarrek bihar izango dute aukera egingo den bisitaldi irekiari esker.

### TXINTXARRI

Lauro urteko itxaronaldiaren ostean, Okendo plaza azpiko, Tajamar biribilguneko eta Beko kaleko garajeak herritarren eskura jarriko ditu Lasarte-Oriako Udalak. Guztira 149 plaza izango dira errentan edo kontzesio modura esleitu direnak.

Okendo plazan 124 marra izango dira. Hauetatik 106 alokairuan eskainiko dira eta 18 kontzesioan.

Donostia Etorbideko 2. zenbakian, hau da, Tajamar biribilgunearen ondoan 21 plaza daude, 18 marra eta 3 garaje itxi. Guztiak alokairuan jarriko dira.

Eta azkenik, Bekokale bideko 12 zenbakian 4 garaje plaza itxi alokatuko dira.

### Ezaugarriak

Alokairuko erregimena duten plazen esleipenak 5 urte iraungo ditu eta gehienez ere beste 5 urtez luzatu ahalko da.

Plazen metro-kopuruaren arabera, prezioak honako hauek izango dira:

- 1. kategoria: 17 m baino gutxiago, hilean 60 euro.
- 2. kategoria: 20 m baino gutxiago, hilean 65 euro.
- 3. kategoria: 26 m baino gutxiago, hilean 70 euro.
- 4. kategoria: 26 m baino gehiagot, hilean 90 euro.

Horiez gain, 18 plaza ireki lizitazioa aterako dira, kontzesio erregimenean.

Kasu honetan, esleipena 10 urtekoa izango da eta edozein unetan kontratua deuseztatzeko eskubidea egongo da.

Denak 17 m baino gutxiagokoak dira, eta hilean 60 euroko errenta izango dute.

Garajeen mantentze gastuak Udalak hartuko ditu bere gain.

### Bisita

Garaje-plaza alokatzeko interesa duten herritarrek eskaera



Okendo plaza azpiko 124 garaje-plaza jarriko ditu errentan. Baina ez da leku bakarria izango.

egin aurretik hauek ikusteko aukera izango dute.

Bihar, urtarrilak 16, goizez 12:00etatik 13:30etara eta arratsaldean 18:00etatik 19:30etara eskainitako aparkalekuak ireki egingo dira.

### Agiriak

Eskaera egiteko inprimakiak eta eskaintza eta esleipena arautzen duten baldintzen agiriak Maite Betelu Administrazioaren [www.m.betelu.com](http://www.m.betelu.com) webgunean edo [www.administrazioa.lasarte-oria.eus](http://www.administrazioa.lasarte-oria.eus) Udalaren orrialdean eskuragarri daude.

Informazio gehiago nahi duten herritarrek Maite Betelu Administrazioari dei dezakete

666 40 91 94 edo 943 36 48 86 telefono zenbakietara.

Eskaera orriak urtarrilaren 27a arte aurkeztuko ahalko dira Maite Betelu Administrazioan.

### Esleipena

Esleipena balorazio-irizpide batzuen arabera egingo da. Eragin-aldean bizi direnek, jardura ekonomiko bat duten edo lan egiten duten puntuazio handiagoa izango dute. Udalerrian beste garaje-plazarik ez edukitzea ere kontuan hartuko da.

Onartuen behin-behineko zerrenda Udalaren iragarkitaulan eta webgunean jarriko da, baita [www.m.betelu.com](http://www.m.betelu.com) ere.

Behin alegazioen epea igarota, behin betikoa izango da zerrenda eta onartuei idatziz jakin araziko zaie garaje-plaza onartzeko edo uko egiteko lekua, eguna eta ordua adieraziz. Deialdi lortutako puntuen arabera egingo da.

Eskaera egiten dutenekin garaje-plazen eskatzaileen erregistro bat sortuko da, etorkizuneko adjudikazioetarako irekia geratuko da.

### Gobernu taldea pozik

Gobernu taldea pozik agertu da, haien helburuetako bat lortu baitu, lau urte esleitu gabe egon diren plaza horiei aterabidea ematea.

## Konponketak Landaberri-Garaikoetxea eta Biyak Bat Zaharren egoitzan

Landaberri Garaikoetxea ikastetxeak atezainaren etxebizitza urgentziaz eraberritzeko lanak esleitu ditu Udalak.

Lasarte-Oriako Udalak jakitera eman duenez, Pablo Garaikoetxea ikastetxeak atezainaren etxebizitza egoera txarrean dago. Hori dela eta, urgentziaz eraberritzeko dekretua sinatu du Udalak Reformas Javier Lasa Igoa enpresarekin. Esleipena 26.569 eurokoa da.

### Hezetasunak eta beste lanak

Udalaren hitzetan, lan horiek beharrezkoak dira logelan dagoen hezetasun arazoa konpondu eta gela babesteko. Arazo hori azken urtean ikastetxeak teiltatu-hodiak gaizki mantentzeagatik etorri da.

Honetaz gain, etxebizitza dagokion araudiara egokituko da.

Horretarako, hainbat trenkada eraitsi eta estaldura pikatu, iturgintzako instala-



Landaberri-Garaikoetxeako atezaintza etxeke hezetasun arazoa konponduko da. Biyak Bat egoitzan, berriz, kafetegiko komunak egokituko dira. Argazkian, atzean ikusten dira.

zioa konpondu, sukaldean azulejuak eta zeramikazko zoladura eta gainontzean, parket flotatzailea jarri eta atek eta leihoak aldatuko dira.

### Biyak Bateko komunak

Bestalde, Udalak Biyak Bat

erretiratuen egoitzeko komun irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dituela jakitera eman du.

Lan horiek Oiartzungo Otegi-Gaztañaga enpresak eramango ditu aurrera eta guztira, 47.887 eurotako aurrekontua izango dute.



Xedea gaur egungo araudia betetzen ez duten komunak egokitzea izango da. Udalak adierazi duenez, zehazki, erretiratuen etxeke bazkideek eta batez ere, mugikortasun murriztua duten pertsonen kafetegi ondoko komun erabilera autono-

moa egin ahal izatea ahalbidetuko da hauei esker

### Argiteria

Hau guztiaz gain, 'Argiteria Publikoaren Hornidura' esleipenerako baldintza-agiriak ere onetsi dira. Zenbatekoa 49.753,69 eurokoa da.



# Concha Arraztio 40 urte Lasarte-Orian lanean

## Harrera pisu bateko arduradun izateaz gain, atzerritarrei laguntza eskaintzen zien

40 urte egin ditu Concha Arraztiok Lasarte-Orian. Jesusen Bihotza apostoluzaren ordeneko kide honek harrera pisu baten ardura izan du. Pisu honetan 8 gazterekin batera, familia txikia osatu du. Uztailean, Santa Ana parodian omendua izan zen herrian egindako lanarengatik. Urtarrilaren 7an, 92 urterekin erantzunkizuna utzi eta komentura bueltatu da.

### TXINTXARRI

**G**aintzan jaio arrez, bere bizitza baino gehiago Nafarroako herri txiki horretatik urrun egin du Concha Arraztiok.

Donostira iritsi zen 12 urte zituela eta 16 eta 18 urte artean, neskame lanak egin zituen apaiz baten etxean. 18 urteak bete eta Jesusen Bihotzaren apostoluzaren ordenean moja sartu zen.

### Besteei eskaintako bizitza

Cerceñako komentuan izendatu zuten monja eta bertan egin zituen hainbat urte misioetara joan baino lehen. 32 urte egin zituen Kuba, Santo Domingo, Haiti eta Puerto Ricon.

Baina Madrileran bueltatu behar izan zen gibelaren gaitasun bat zela eta.

Osatutakoan Martutenera etorri zen Concha eta irratia eskertzen, Nuevo Futuro elkartearen proiektu berri bati buruz jakin zuen, harrera pisuak.

Beharra zuten haurrekin lan egiteko gogoak zuten Conchak eta pisu hauetako baten arduradun izan nahi zuela erabaki zuen.

Bere nagusiei jakin arazi zien erabakia eta hauen onepena izan ostean, hainbat proba gainditu behar izan zituen Conchak harrera pisuko arduradun izateko.

1976 urteko maiatzaren 10ean iritsi zen Lasarte-Oriako pisura.

Hurrengo hilabeteetan familia desegituratutako 8 gazte hartu zituen: Unai, Francisco J. 'Rambo', Manu Valeriano, Martin, Lourdes, Yolanda eta Begoña. Gazteekin batera familia osatu zuen



Concha Arraztio eta Francisco J. 'Rambo' Santa Ana parodia baino lehen egiten den afariko irudi batean.

eta amaren lana egin du guztietan.

Unairen heriotzak momentu gogorak izan ziren, baina egoera gainditu egin eta beste kide berri bati ireki zizkion ateak famili honek, Israeli.

Gazteek pixkanaka bere bizitza egin eta pisua utzi dute. Azkena, Francisco J. Adrian 'Rambo' izan da. Asteazken, egunez Irungo Garagune zentroan egoten da

eta asteburuetan, berriz, Valeriano bere tutore legalarekin Lasarte-Orian.

Franciscoren egoera konpondu eta osasun arazoak kontuan izanik, Conchak bere nagusiak proposatu legez, ordeneko Martuteneko egoitzara erretiratzeko erabakia hartu zuen eta urtarrilaren 7an utzi zuen Lasarte-Oria.

Herrian oso maitatua izan da Concha urte hauetan guztietan etorkinengatik alde

egindako lanarengatik. Azken 15 urteetan, 500 bat pertsonari laguntza eskaini zien etxea edo lana aurkitzen. Eta horrengatik, esate baterako, uztailearen 26an, Santa Ana parodian omenaldi txikia jaso zuen.

Conchak berak eskerrak eman nahi dizkie Nuevo Futuroko kideei eta Lasarte-Oriako herritarrei egindako harrera eta urte hauetan guztietan eskaintako laguntzarenengatik.

## Saharar kanpamentuen aldeko bilketa



Herriko supermerkatuetan eta ikastetxeetan lekua izango da elikagaiak uzteko.

**L**asarte-Oriako Saharako Lagunak taldeak Tindoufeko kanpamentuetara otsailean joango den XII. "Piztu itxaropena" Euskal Karabanarekin bat egingo du. Hori dela eta, egun hauetan janari bilketa hasi du taldeak gure herrian.

Jasoko dituen produktuak sardinak oliotan, arroza, azukrea, pasta, konpresak, hegalezia, azukrea, hegalezia, sardinak eta konpresak dira.

Herriko supermerkatu ezberdinetan izango da elikagai eta produktu horiek uzteko aukera larunbata honetan.

Honetaz gain, urtarrilak 23an, zentroko BM-n eta Urbilen izango dela ere jakitera eman du taldeak.

Lasarte-Oriako txikienek ere bere harrizkoa jartzeko aukera izango dute eskoletan urtarrilaren 22ra arte egingo den bilketan parte hartuz.

Emakumeen zentroan eta Biyak Bat erretiratuen egoitzean ere jasoko dira produktuak.

### Urte gogorra

Karabana hau Saharako herriak pairatzen duen elika-

gai eskasia nolabait arintzen saiatzeko helburuarekin sortu zen duela hamabi urte eta elkartasun tonak eramaten ditu kanpamentuetara.

Aurten bereziki taldeko kideek herritarrek gonbidatu nahi dituzte janari bilketa honetan parte hartzera, 2015 urteko urrian uholde gogorra jasan baitzuten Tindoufeko kanpamentuetako errefuxiatuek eta familia askok zuten guztia galdu baitzuten. "Horrengatik, garrantzitsua da solidarioa izatea," azpimarratu du taldeak.

**EUSKAL INAUTERIETARAKO "TXANTXO" JANTZIRIK EZ DUZULA? EZ LARRITU!**

**"TXANTXO" JANTZI IKASTAROA ANTOLATU DUGU HAUR ETA GURASOEI ZUZENDUA**

Noiz: Urtarrilak 18, 17.30-19.00 edo urtarrilak 23, 11.00-12.30

Non: Anbulategiko eraikineko 2. solairuan

Izen-ematea: Ttakuneko bulegoan, aisia@ttakun.eus, 943 37 14 48 edota 695 785 392 (WhatsApp)

\*Ikastaroa euskaraz eta doan izango da



**ADURIZ DE LASARTE, S.A.**

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51



## LABURRAK.-

## ISU Leihoak eta Cecilia Kebab Lasarte Ostadar taldeek irabaziz ekin diote 2016ari

Gipuzkoako 1go (ISU) eta 2. mailan (Cecilia Ostadar) aritzen diren herriko bi taldeek hiruna puntu poltsikoratu zituzten 2016an jokaturako lehen jardunaldian.

Bolada onean dira Eneko Molinak entrenatzen dituen mutilak; lau garaipen erdietsi dituzte jarraian, pasa den ostiral gaueko kontakuta. Hirugarren postuan den lurre Tabernaren aurka neurtu zituen indarrak ISUk; partidu gogor eta orekatu baten ostean, 3-2 irabazi zuten herritarrek. Saillapeneko goiko taldetxoan sartu da ISU: bosgarren postuan da Eneko Molinak zuzendutako taldea, 22 punturekin. Partida bakarrera dauka bigarren postua. Arerio zuzen baten aurka jokatu dute gaur, 23 puntu dituen Pescados Ferreres taldearen aurka hain zuzen.



ISU LEIHOAK

Cecilia Kebab Lasarte Ostadar estreinakoz ari da 2. mailan eta sasoi ezin hobea burutzen ari da. Ligako lidertza berreskuratu du asteburu honetan, Idiazabal Gorrotxategi 2-0 garaitu ostean. Edu Menak entrenatutako taldeak hamaika partidu jokatu ditu orain arte, eta ez du bakar bat ere galdu; zazpi irabazi eta lau berdindu ditu. Alustiza Autobusak Orio taldearen kantxan ariko dira bihar herritarrek, Karela Kiroldegian, 18:10ean.

## Profesional ibilbideko lehen garaipena bilatuko du gaur Arteaga II.ak Zumarragan

Asegarce enpresarekin debuta egin berri duen Axier Arteaga pilotari gazteak profesional ibilbideko lehen garaipena eskuratu nahi du, gaur gauean Zumarragako Beloki pilotalekuan jokatu duen norgehiagokan. Aretxabaletarekin egingo du bikotea; Tainta eta Ander Imaz izango dituzte aurkari. 22:00etan hasiko da partida.

Urtarrilaren 4an egin zuen debuta Tolosako Beotibarren. Ibai Zabala izan zuen bikotekide eta Victor eta Imaz aurkari. 22-6 galdu zuten urdinek. Aurreko astean Iruñeko Labriten aritu zen herritarra Imazekin, Victor eta Apraizen aurka indarrak neurtuz. Hobeto jokatu arren, gorrirentzat izan zen garaipena, 22-15.

## Senior mailako errugbiak gozatzeko aukera bihar Michelingo berdegunean

Eguberrietako festen ostean, berriro ere lehiatzera itzuliko dira kategoria ezberdinetako Beltzak taldeak. Seniorren Euskal Ligako 2. mailan aritzen den Lavie ZRT-Beltzak taldeak Michelinen jokatu du bihar, 10:00etan, Gernika B taldearen kontra.

Bestalde, Ohorezko B mailako Babyauto Zarautz taldea Valladolidera joango da igandean, VRAC Quesos Entrepñares B-ren aurka indarrak neurtzera. 12:30ean jokatu dute. Azkenik, 14 urtez azpiko Lavie ZRT-Beltzak taldeak Ordizia Aren aurka jokatu du bihar Zarauzko Asti zelaian, 11:00etan.

## FUTBOLA.-

## Jokoa, golak...eta puntuak

Lehen itzulia hirugarren postuan amaitu du Ohorezko Erregional taldeak, 32 puntu zakuratuta

Azkeneko lau jardunalditan garaipena eskuratuta, hirugarren postuan dira Mikel Medina eta Gaby Sanchezen mutilak. Tolosa eta Anaitasuna besterik ez dituzte aurretik, sei eta lau puntura hurrenez hurren. Bihar ekingo diote bigarren itzuliari, Michelinen, Hondarribiaren kontra. Arratsaldeko seietan hasiko da norgehiagoka.

## IÑIGO GONZALEZ

Denboraldiko lehen partiduko kronika 'Jokoa eta aukerak bai, punturik ez' esaldiarekin titulatu zuen kazetariak. 2-0 galdu zuten Hondarribiaren aurka. Itzuli oso bat igaro da ordutik, eta nabarmen aldatu dira zenbait aspektu. Joku ona egiten jarraitzen du Ohorezko Erregional taldeak, aukerak ere sortzen ditu, baina azkenaldian golak sartu eta hiru-naka zakuratzen ditu puntuak.

Bigarren itzuliari ekiteko atarian, Mikel Medina eta Gaby Sanchezen mutilek 32 puntu bildu dituzte, eta hirugarrenak dira saillapenean. Azkeneko lau partidak irabazi dituzte jarraian, eta gehiago nahi dute.

Bihar edukiko dute aukera bolada onari jarraipena emateko, gotorleku bilakatu den Michelingo zelaian. Hain zuzen, Hondarribiaren aurka neurtuko dituzte indarrak, arratsaldeko seietan hasita.



Irudian, pasa den larunbatean Orioko 4-1 mendean hartu zuen hasierako hamaikakoa.

## Etxean sendo

Zazpi partidu irabazi, bat berdindu eta beste bat galdu. 19 gol alde eta 9 kontra. Etxean sendo ari da herriko taldea; Michelingo zelaia puntu-iturri oparo eta fidagarri bihurtu du, lehengo urtean ez bezala. Goi partean dabilzan Tolosa, Hernani eta Touring, beste batzuen artean, esku-hutsik atera dira bertatik.

Etxetik kanpo berriz, hiru partidu irabazi dituzte, bakarra berdindu eta lau galdu. Denera hamazazpi norgehiagoka jokatu ditu taldeak; hamar irabazi ditu, bi berdindu eta bost galdu. Iazko sasoiaren 11 partidu irabazi zituzten urdin-beltez denera eta aurten, lan erdiak eginda, bat gutxiago daramate soilik.

Emaitza onen gakoetako bat jokalarik gazte eta beterranoen arteko konbinazioa da. Lehenen ilusio eta goseak primeran egiten du bat bigarre-

nek daukaten esperientzia eta jakituriarekin. Hainbat urtetan goi-mailan jokaturako aurrelari bat edukitzeak ere badu eragina, noski: 14 gol daramatza Gorka Britek aurten.

## Ilusioz gainezka

Ostadarrek 2012/13 denboraldian jokatu zuen estreinakoz Erregionalen Ohorezko Mailan. Aurtengo sasoiara arte, maila mantentzeagatik egin du borroka baina, aurtengo martxari erreparatuz, beste helburu batzuk ditu taldeak buruan, bigarren saillatua (Azkoitiko Anaitasuna) bi puntura baitauka eta liderra berriz, seira (Tolosa).

Hirugarren Mailara igotzeko borrokan sartu da Ostadar bete-betean. Horiek hitz potoloak dira oraindik, liga erdia falta baita, baina behintzat hor dago aukera. Ez litzateke titular txarra izango denboraldiko azken kronikarako.

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Larunbata 16

Michelin, 11:40ean

Ostadar SKT - Beti Gazte KJKE

Jubenilen Ohorezko maila,

16. jardunaldia.

Puio, Donostia, 12:30ean

Vasconia CD - Ostadar SKT

Kadeteen Ohorezko maila,

16. jardunaldia.

Michelin, 18:00etan

Ostadar SKT - Hondarribia FE

Erregionalen Ohorezko maila,

18. jardunaldia.

Karla Lekuona, Oiartzun, 18:00etan

Oiartzun KE - Ostadar SKT

Jubenilen I. maila, igoera fasea,

3. jardunaldia.

Herrera, Donostia, 19:30ean

Axular KKE - Texas Lasartearra

Erregionalen I. maila, kopa, 3. jardunaldia.

Igandea 17

Michelin, 12:30ean

Ostadar SKT - Intxaundi KE

Emakumezkoen Lurralde maila, igoera

fasea, 4. jardunaldia.

## SASKIBALOIA

Larunbata 16

Manuel Muñoz kiroldegia, 11:15ean

Eskoriatza KE - Ostadar SKT

Partizipazioko junior neskek, 13. jardunaldia.

Udal-kiroldegia, 16:00etan

Ostadar SKT - Easo 99 Balerdi

Errendimenduko junior neskek,

14. jardunaldia.

Zubikoa kiroldegia, Oñati, 16:00etan

Aloña Mendi KE - Ostadar SKT

Senior gizonezkoen 3. probintziala,

kopa, 2. jardunaldia.

Igandea 17

Udal-kiroldegia, 9:30ean

Ostadar SKT - Eskoriatza KE

Partizipazioko kadete neskek,

4. jardunaldia.

Paco Yoldi kiroldegia, Donostia, 12:00etan

Askatuak - Ostadar SKT

Errendimenduko kadete neskek,

14. jardunaldia.

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 15

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean

Izkiña - Txindoki

Michelingo kirol-gunea, 20:45ean

Urdaneta HK - Txoko

Donibane kiroldegia, Pasaia, 20:30ean

Pescados Ferreres - ISU Leihoak

Gipuzkoako I. maila, 13. jardunaldia.

Larunbata 16

Michelingo kirol-gunea, 9:15ean

Indaux - Trumoi

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

Viña del Mar - Ilargi

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean

Also - Reformas Lagunak

Michelingo kirol-gunea, 12:15ean

TSST - El Punto

Usabal kiroldegia, Tolosa, 10:00etan

Laskorain A - Lasarte Kafe Bar

Jubenilen maila,

10. jardunaldia.

Udal-kiroldegia, 18:00etan

Ostadar Antonio - Santurtzi

3. Nazionala, 12. jardunaldia.

## IGERIKETA

Larunbata 16

Azpeitiako kiroldegia, 10:00-17:30

Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta

absolutuak Neguko Gipuzkoako

txapelketan ariko dira.

Legazpiko kiroldegia, 10:00-17:30

Neguko txapelketarako gutxieneoak

ez dituzten igerilariak Neguko VIII. Saria

jokatu dute.

Igandea 17

Benta Berri kiroldegia, Donostia, 10:00etan

Buruntzaldea IKTKo Master taldeak III.

Kairoscore saria jokatu du.



## Agenda

Urtarrila osoa, Jalgi Kafe Antzokian



### Kolorez betetako lore eta paisaiak

Jose Luis Oria margolariaren lanak ikusgai daude. Olio margotutako Donostia eta Zumaiako txokoen ikuspegi ezberdinak edo natura hilez gozatu ahalko da hilabetea honetan zehar. Erakusketa margo guztiak salgai daude. Interesa duenak Jalgi Kafe antzokian bertan eskuragarri du koadroen zerrenda eta hauen prezioen orria.

### Musika

**FURIA BELTZA TABERNA**  
Ostirala 22,  
23:00etan  
Ñaco Goñi abeslariaren kontzertuaz gozatu ahalko da.



### Opera

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**  
Larunbata 23, 19:30ean  
Placido Domingo abeslariak 75 urte beteko dituela ospatzeko 'Cyrano de Bergerac' opera proiektatuko dute Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan. Sarrera, 9 euro

### Andoain

### Antzerkia

**BASTERO KULTURGUNEA**  
Gaur, ostirala, 21:30ean  
Ylana-ren 'The Gagfather' hitzik gabeko antzerkia. Sarrera, 15 euro.

### Hernani

### Erakusketa

**BITERI KULTUR ETXEA**  
Urtarrilak 21era arte, 18:00etatik aurrera  
Jose Mari Igerategiren egur eskulturen erakusketa.

### Txotx Eguna

**GUDARIEN PLAZA**  
Larunbata, 12:00etan  
Hernaniko txotx denboraldiaren irekiera ekitaldia.

## Lasarte-Oria

### Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**  
Ostirala, 19:00etan eta 22:00etan  
Helduentzako zinea atalean, 'Star Wars' filme sorta famatuaren zazpigarren atala ikusi ahal izango da. Sarrera, 5,50 euro.

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**  
Larunbata, 19:00etan eta 22:00etan  
Helduentzako zinea atalean, 'Star Wars' filme sorta famatuaren zazpigarren atala ikusi ahal izango da. Sarrera, 5,50 euro.

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**  
Igandea, 17:00etan  
Haurrentzako zinea atalean, 'Star Wars' filme sorta famatuaren zazpigarren atala ikusi ahal izango da. Sarrera, 5,50 euro.

Urtarrilaren 23an egingo dute aurten go lehen ipar martxa irteera. Goizeko 10:00etan aterako dira Okendo plazatik. Hamaiketakoarekin batera, Osakidetzako psikiatra batek hitzaldia emango du. Ipar martxaren onurak osasun mentalaren ikuspegitik aztertuko dute.



**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**  
Igandea, 20:00etan  
Helduentzako zinea atalean, 'Star Wars' filme sorta famatuaren zazpigarren atala ikusi ahal izango da. Sarrera, 5,50 euro.

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**  
Ostirala 22, 22:00etan  
Okendo Zinema Taldearen eskutik, 'Rams (el valle de los carneros)' filma

islandiarra izango da zine forumean. Sarrera, 5,50 euro.

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**  
Igandea 24, 17:00etan  
Haurrentzako zinea atalean, 'El viaje de Arlo' animaziozko filma ikusteko aukera. Sarrera, 3,80 euro



**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**  
Igandea 24, 20:00etan  
Helduentzako zinea atalean, 'Truman' Ces Gayk zuzendutako filma ikusteko aukera. Sarrera, 5,50 euro

## Herritarren txokoa

### Galdutako betaurrekoak

Ikusteko betaurrekoak galdu ditut Sasota ibilbideko paseoan, N-1 errepide parekoan edo Plazaola bidean. Aurkitzen dituenak mesedez jarri harremanetan honako telefono zenbakian, 600 67 78 72 (Axun).

### Karteta jolasteko taldea

Emakume heldu bati larunbata arratsaldetan kartetan (mus, truke...) jokasteko taldea sortzea gustatuko litzaioke.

Interesa duenak jar dadila harremanetan honako telefono zenbakian 21:30ak baino lehen: 943 36 33 71, Ana.

### Ipar martxa irteera

Urtarrilaren 23an egingo dute aurten go lehen ipar martxa irteera. Goizeko 10:00etan aterako dira Okendo plazatik. Hamaiketakoarekin batera, Osakidetzako psikiatra batek hitzaldia emango du. Ipar martxaren onurak osasun mentalaren ikuspegitik aztertuko dute.

### Eskertza

Urtarrilaren 23an egingo dute aurten go lehen ipar martxa irteera. Goizeko 10:00etan aterako dira Okendo plazatik. Hamaiketakoarekin batera, Osakidetzako psikiatra batek hitzaldia emango du. Ipar martxaren onurak osasun mentalaren ikuspegitik aztertuko dute.

## Sarean

### Euskalkiak sarean

Koldu Zuazo Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak eta bere taldekideek 'euskalkiak.eus' webgunea jarri dute martxan.

Helburua Euskal Herri osoko gaur egungo euskara mintzatua erakustea da. Hori dela eta, edozein herritarrei zuzendutako gunea da.

Horretarako, euskalkiei buruzko hainbat datu eskaintzen dira lau ataletan banatuak: historian zehar egin diren euskalkien sailkapena, euskalkien ezaugarri nagusiak, euskalkien jatorria eta zenbait hizkeraren gaineko monografiak.

Hau guztia, Zuazok egindako azterketeta eta banaketetan oinarritua dago. Esate baterako, gaur egun bost euskalki bereizten ditu: mendebalekoa, erdialdekoa, nafarra, nafar-lapurterra eta zuberotarra.

Euskalki ezberdinak entzuteko aukera ere badago, Euskal Herri osoan egindako bideoen ikus-entzunezko atalari esker. Hauetan pertsonai ezagunak ikusi daitezke, Abel Barriola pilotaria, Miren Amuriza bertsolaria edo Euskal Kultur Erakundeako zuzendaria den Peio Etxegoin, esatea baterako.

Eta 'Hizkeraz hizkera' atalean hizkera jakin batzuen ezaugarriak azaltzen dira: Burundako hizkera eta Araitz-Beteluko hizkera.

Hau guztiaz gain, euskararen batasunari buruzko atala ere badu webguneak. Honetan, euskara batua sortzeko XX. mendean emandako urrats esanguratsuak azaltzen ditu, baita aurretiko baten bat ere. Hala nola, Ipar Euskal Herrian ortografia arautzeko eman ziren lehen pausoak.



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info



# Euskal Inauteriak badatoz!!

Txantxo jantzi ikastaroa eta 'Korrotik pikutara' hitzaldia izango dira aste hauetan

Otsailaren lehen astean Inauteriak izango dira Lasarte-Orian. Hauekin lotuta Euskal Inauteriak ere egingo dira, baina aurten hainbat berrikuntza eta aldaketa izango dira hainbat eragileek batera antolatzen duten jaialdian. Hurrengo asteetan jakin araziko dute gehiago antolatzaileek, baina Inauterien aurretik, bi ekintza iragarri dituzte: txantxo jantzi ikastaroa eta euskal dantza buruzko hitzaldia.

Hiru aste besterik ez dira geratzen Inauterietarako. Festa giroak Lasarte-Oria hartuko du berriro ere. Aurtengo gaia itsasoa da eta jantzia prestatzen has-teko garaia da.

Baina ez da garai honetan erabiltzen den jantzi bakarra izaten, Lasarte-Orian Euskal Inauteriak ere antolatzen baitira.

Aurten aldaketa eta berrikuntza asko iragarri dizkigute antolatzaileek. Baina egitarauko puntu batzuk zehazteke daudenez, ez dute ezer aurreratu nahi.

Hala ere, Euskal Inauterietan parte hartzeko deia egiten diete herritarrei eta horretarako, txantxo jantzia prestatzera edo egitera animatzen ditu, baita dantza ikastera ere.

Ttakun kultur elkarteak hau prestatzeko ikastaroa egingo du hurrengo asteetan. Baina ez da hau Euskal Inauterietako aurrekari bakarra izango, 'Plaza dantza' ekimeneko saioetan dantzak entsegatuko dira eta 'Korrotik Pikutara' hitzaldia ere eskainiko baitute Oier Araolaza eta Gari Otamendik.

## Jantzi ikastaroa

Aipatu legez, Txantxo jantzia egiteko ikastaroa antolatu du Ttakun kultur elkarteak. "Iaz

ere egin genuen eta ekintza polita iruditzen zaigu birziklapena lantzeko," aipatu dute ikastaroko arduradunek.

Haur zein helduei zuzendutako ikastaroa izango da eta bereziki, Euskal Inauterietan parte hartu nahi dutenei begira antolatu da.

Bi saio izango dira bata urtarrilaren 18an, astearte 17:30 eta 19:00ak bitartean eta bestea 23an, larunbatean 11:00etatik 12:30era eta Osasun Zentroko 2. solairuko balioanitzeko gelan egingo dira.

Txantxo jantzien oinarria zakua izango da eta antolatzaileek banatuko dituzte saioetan.

Parte hartzaileek berriz lastozko txano bat eraman behar dute, baita oihal zaharrak ere.

"Oihal zatiekin zakua eta lastozko txano apainduko ditugu," adierazi dute.

## Txantxo jantzia

Euskal Inauterietan parte hartu nahi duten eta saio hauetara joan ezin diren herritarrek txantxo jantzia etxean egiteko aukera dute.

Mozorro koloretsua Miel Otxinen antzekoa edo zakuz egina Ziripoten antzekoa, edozerk balio du inauterietan.



Ttakun kultur elkarteak antolatuta, txantxo jantzia egiteko ikastaroa izango da hurrengo astean.

Soinean, blusa (sanpedrotakoa), amonaren sukaldeko bata, aitaren hippy garaiko alkandora edo arpillera zakua jantzi daiteke.

Azpikogona eta galtza modura, mahoizko prakak, loredunak, pijama zaharra, koloretako edozein galtza...

Oinetan artilezko galtzerdiak, abarkak edo botak eraman daitezke.

Eta buruan, lastozko txanoak edo kukurutxoak, dena zinta politez josia edo bestelako txapel bat, beltza edo koloretakoa.

Ez ahaztu aurpegia ezkutatzea; horretarako ipini oihal fin bat kapelatik zintzilikatuta edo maskara gisa, arnasa hartzen utziko dizuna, nahi izanez gero egin ikusteko eta arnasa hartzeko zuloak.

Esquetan erratza, makila, zartagina, ferratzeko mailua,

sardea, txintxarriak, kanpai-toxak eraman ohi dituzte.

## Dantzak ikasi

Baina jantziak gain, dantzak ere jakitea ongi dator. Horretarako, 'Plaza dantza' ekimeneko saioetan Euskal Inauterietako desfilean zehar edo Okendo plazan egingo diren dantzak entseiatuko dira.

Entsegu ireki hauek bi astearteetan, urtarrilaren 19 eta 26an egingo dira, 20:00etatik 21:30ra, Sasoeta ikastetxeko gimnasioan.

Beraz, dantzak ikasi eta Euskal Inauterietako konpartsan parte hartu nahi duten herritarrek ezgaldu aukera eta hurbildu saio hauetara.

## Hitzaldia

Bestalde, euskal dantzaren historia aztertzen duen 'Korrotik Pikutara' hitzaldia berezia ere antolatu da.

Hitzordua urtarriaren 27an, 19:00etan Sasoeta ikastetxeko gimnasioan izango da.

Bertan Oier Araolaza eta Gari Otamendik euskal dantzaren historia bat kontatu eta gorpuzten dute.

Dantza molde zaharretatik gaur egungo dantza formetara egindako bidea egingo dute. Korroan edo borobilean hasi, eta dantzak nola joan diren aldatzen erakutsiko dute, soka-dantza, ingurutxo eta kontra-dantzetatik pasaz, bikote dantzetara iritsi eta azkenik norbanako bihurtu arte. "Taldetik indibidualera, borobiletik dispertsiora, korrotik pikutara joan omen dira aldatzen gure ohiko dantzak".

Hitzaldi-dantzatu moduan

aurkezten den ekitaldia da, beraz, ibilbide hori hitzez eta dantzaz aurkezten dute.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, 16 urte baino gehiagoko herritarrei zuzendutako ekintza da.

## Hizlariak

Gari Otamendi dantzaria eta musikaria da. Añorgako Arkaitz eta Donostiako Argia dantzari taldeetako dantzaria da, *dantzan.eus*-ko kidea da, Gipuzkoako Dantzagunean egiten du lan, eta hainbat musika, bertso eta dantza talderekin jotzen du arrabita.

Oier Araolaza dantzaria da, Eibarko Kezka eta Donostiako Argia dantzari taldeetako dantzaria da, *dantzan.eus*-eko editorea eta Mikel Laboa Katedrako bekaduna da.

## Izena ematea

Ikastaroan eta hitzaldian parte hartzeko izena ematea beharrezkoa dela jakitera ematen dute Ttakun KEko kideek.

Txantxo jantzi ikastaroan izena emateko lau aukera daude: Ttakun KEko bulegora hurbildu, *aisia@ttakun.eus* helbidera edo 695 785 392 WhatsApp zenbakira mezua bidali eta 943 37 14 48 telefono zenbakira deitu.

Hitzaldi bereziaz gozatzeko berriz, bulegora hurbildu edo 943 37 14 47 telefono zenbakira deitu beharko dute interesatuek. Urtarrilaren 22ra arte izango da izena emateko aukera.

'Plaza dantza' egitasmoko entsegu irekietara hurbiltzeko ez da inskripziorik egin beharko.



Euskal Inauterietako konpartsak hainbat doinu dantzatzeko dituzte eta hauek entsaiatzeko egunak izango dira 'Plaza dantza' ekimenean.